Deformatu beharreko materialen tenperaturak ber kristaltze tenperatura baino handiagoa baldin bada, berotako estanzazioan arituko gara, eta txikia bada, aldiz, hotzeko estanzazioa deitzen zaio.

Egia da estanzazioak elementu metalikoen eraldaketa helburu duela. Prozesu hau ez da berdin egiten, bi teknika garrantzitsu existitzen baitira: hotzeko estanzazioa eta berotako estanzazioa jarraian azalduko ditugunak.

#### 1.5.4.1. ESTANPAZIOA BEROAN

Berotako estanzazioa prozesu berritzailea da, zeinen bidez altzairu erresistenteak forma konplexuetan moldatzen dira modu eraginkorrean, hotzeko estanzazio konbentzionalarekin baino. Atal honen bukaeran berotako estanzazioaren adibide bat txertatu dugu, 29. irudia.

Estanzazio mota hau berkristaltze tenperaturaren gainetik egiten da eta burdinaren kasuan  $910\text{ }^{\circ}\text{C}$  da. Lortutako produktuak zimurtasun eta prezisio dimentsional gutxiago du, baina deformazio handiagoak lortzen dira.

Prozesuak altzairua berotu egiten du malgua bilakatuz, konformazioarekin jarraituz eta azkar hozteaz gain, material eraldatua eta gogortua sortuz prozesu horretan.

Erresistentzia eta konplexutasuna modu eraginkorrean konbinatzeko gaitasun horri esker, beroan estanzatzean pieza arinak lortzen ditu eta hotzean ekoizten bada soldadura lodiagoak eta pieza astunagoak lortuko ziren, prozesu ugari erabiliz eta denbora gehiago erabiliz fabrikatzeko.

Aitzitik, metal beroaren estanzazioa gauzatzeko, tenperatura altuak materialaren zurruntasun handiagoa bultzatu behar du, eta horrela malgutasuna lortuz. Prozesu honek zehaztasun mekaniko eta dimentsional gutxiagoko produktuak ekoizten dituen arren, materiala azkar urtzen da.

Lehengaita (formakuntza prozesuan) altzairua da lingote eran, egitura kristalino tipikoarekin, lodia eta dendritikoa. Ez da aproposa erresistentzia mekanikoa eskatzen den prozeduretan. Zuzenean fabrikatu diren piezak lana eta inpaktuaren zamak jasotzen dituztenean huts egingo dute. Ale dendritikoak berkristaldu behar dira altzairuari beharrezko erresistentzia emateko berotako eragiten bidez.

Ale tamainan eragina duten faktoreak:

- Prozesuaren amaierako tenperatura
- Hozte abiadura
- Alearen hasierako tamaina



Deformazio kopurua: metala tenperatura altuan dagoenez, kristal erreformatuak berriz hazten dira, baina ez hain handi eta irregularrak. Lana berotan egitean eta metala hoztean kristal txikiagoak eraten dira, uniformeagoak eta zertxobait lauak. Honek metalari anisotropia baldintza ematen dio edo alearen orientazioa, hau da, metala harikorra da eta deformagarriagoa da ardatzaren norabidean norabide elkartuztean baino. Honen ondorioz, ez da gogortasunezko harikortasuna handitzen aleak distorsionatuak baitira eta arin aldatzen dira deformazio gabeko ale berrietara. Gainera, kristalen arteko espazioa txikitzen da eta ezpurutasunak bereizturik daudenez zailagoa da hau apurtzea (granular egitura hobetua). Indar gutxiago eskatzen du, eta, beraz, denbora gutxiago du, materia malgua delako. Erresistentzia baxuko eremuak ezabatzen dira.

Baina desabantailak ere badira; oxidazio azkarra, honenbestez azalera ahula da. Bero erresistentzia dela eta, tresna nahiko garestiak behar dira eta ezin dira tolerantzia txikiak mantendu.

Hortaz, berotako estanpazioan prozesu berritzailea da. Forma konplexuko altzairu oso erresistenteak moldeatzen dira era efizienteago batean. Prozesuak altzairuaren berotzea dakar, konformazio eta berez diseinatutako trokelak azkar hozteko. Erresistentzia eta konplexutasuna konbinatzeko ahaleginak pieza lirain eta produktiboak lortuko dira. Hotzean aldiz, piezaren bat soldatu beharko zen eta denbora luzeago batean burutu beharko zen.

Hotzeko estanpazioa berkristaltze tenperaturaren azpitik egiten da eta alea prozesuan zehar deformatzen da, egitura mikroskopioan anisotropia lortuz. Lodiera baxuko piezetan aplikatzen den prozesua da, normalean txapa edo laminak izaten dira zeintzuek lodiera uniformeak duten.

Gaur egun, pisua arintzeko konponbide aurreratuenak dira gorputz egituretan. Kolpearen aurrean portaera hobetzen du eta bidaiariaren segurtasuna hobetzen du.



## 29. irudia: Berotako estanpazioaren adibidea (Gestamp)

### 1.5.4.2. ESTANPAZIOA HOTZEAN

Hotzeko transformazio teknologiak makina mota transformazio eragiketak dira. Profilaketa eta hidroformazioa hotzean osatutako azpikategoriak dira. Honek era askotako piezak fabrikatzea ahalbidetzen du, gorputz zati txikietatik pieza handietara, hala nola atek eta alboko panelak.

Hotzeko estanpazioa egiteko, maneiatzeko elementuak tenperatura baxuan egon behar dute. Teknika hori lodiera uniformeetan edo xafletan egiten da, hotz edo beroaren gabezia dela eta, materiala deformatzeko aukera ematen du eta, horrela, puntzonaketa, xaflak pieza moztu, deformazioa luzapenetan, tolesturak, pieza hutsak lortzea. Garrantzitsua da altzairu, aluminiozko aleazioen, zilar eta latoiaren presentzia estanpazioa burutu ahal izateko.

Kristalizazio tenperatura azpitik konformatzen den materiala hotzean ari garela esango dugu. Metal gehienekin hotzean lan egiten da edo giro tenperaturan baina formakuntza erreakzioaren ondorioz tenperatura hazkunde bat jasaten da piezan. Berotako lana metalaren gainean estanpazio plastikoa egiterako orduan alearen egitura fintzen du. Aldiz, hotzetako eragiketa egitean alearen tamaina txikitzen du baita distortsionatu ere.

Hotzeko lanak erresistentzia, mekanizagarritasuna, dimentsioko zehaztasuna eta metal azalera amaieran hobetzen du. Oxidazio dela eta, txikiagoa hotzean, hobe konforma daiteke.


Ondorioz, lan desberdintasun nagusia prozesua egiten den temperatura da. Hotzean materiala ber kristaltze temperatura azpitik dago eta prozesuak pieza eta ekipoaren frikzioa dela eta temperatura igoera jasotzen du. Hortaz, esaten dute 200 °C-raino heltzen direla hotzeko estanzazioak.

Metal guztiak kristalinoak dira jatorriz eta neurri ezberdinetakoak, ale irregularrez osaturik. Egitura aldaketek alearen zatiketa, atomoen mugimenduak eta sarearen distortsioa sortzen dituzte.

Presio hotzak lan beroak baino presio handiagoa eskatzen du. Metalak egoera zurrunagoan mantentzen duenez, ez da betirako deformatua, muga elastikoa gainditu duen arte.

Metal batek hotzean eusten duen lana harikortasunaren menpekoa da, metal harikorra goak hobeto funtzionatuko du. Metal puruak elementu jakin batzuek baino deformazio handiagoa jasan dezakete, aleazio metalek gogortasunaren joera eta abiadura handitzen baitute.

Hotzeko estanzazioaren abantailak eta gaitasunak honako hauek dira: indarra handiko materialekin lan egitea, ibilgailuen egiturazko pisuak murrizteko konponbideak ematen dituzte. Hau bereziki garrantzitsua da txasis piezetarako, non materialen lodiera eta indarra handiagoa den. Hemen jarraian aplikazio honen adibide bat dugu, 30. irudia.



**30. irudia:** Hotzeko estanzazioaren adibidea (Gestamp)

Bukatzeko aurretik aipaturiko estanzazioen abantailak ondoko 4. taulan batuko dira gero ponderazio taula osatzeko asmoz.

Hotzeko deformazioa	Berotako deformazioa
Prezizio handiagoa	Deformazio handiak
Azalera akabera hobe	Hausturako arrisku txikia
Erresistentzia handitzea	Ez dago gogortzerik
Energia aurrezte	Lan gutxiago (makina txikiagoak)
Propietateen zuzentasun mekanikoa	Isotropia handiagoa

**4. taula:** Hotzeko eta beroko estanzioaren abantailak

Honetarako jarraituko dugun irizpidea aurreko bera da ondoko 5. taulan ikus genezaken bezalaxe.

1- Eskasa; 2- Ertaina ; 3- Handia

Konformazio mota	Beroan	Hotzean
Prezisia (1)	1	3
Erresistentzia (2)	2	4
Erraztasuna (3)	9	3
Kostua (3)	15	9
<b>Guztira</b>	<b>27</b>	<b>19</b>

**5. taula:** Konformazio mota bien ponderazio taula

## 1.6.ARRISKUEN ANALISIA

---

Atal honetan proiektuaren gauzatzeak izan dezakeen arrisku potentzialen analisia egiten da, edo proposatutako irtenbidea egokia edo baliozkoa den. Hauek sekuentzia bat jarraitzen dute ondoren deskribatuko dena:

- Arrisku kudeaketaren planifikazioa: proiektuaren arrisku kudeaketan nola burutu behar diren zehaztea.
- Arriskuen azterketa identifikazioa: proiektuan eragin dezaketen arriskuen ezaugarriak zehaztu.
- Arriskuen azterketa kualitatiboa: gertatzeko probabilitatea eta eragina jorratu. Saillkapen honi esker lehentasuna duten arriskuak identifikatuko dira.
- Arriskuen azterketa kuantitatiboa: proiektuaren helburu behinenetan eragina zenbakitan jorratu.
- Arriskuei erantzunaren planifikazioa: Proiektuaren helburuek dituzten mehatxuak gutxitzeko eta aukerak hobetzeko ekintzak eta aukerak garatu.
- Arriskuen jarraipena eta kontrola: arriskuei erantzun planak inplementatu, arriskuak kontrolatu, arrisku berriak identifikatu eta proiektuan zehar arrisku kudeaketaren prozesuko eraginkortasuna ebaluatu.

- *Doitasun maila ez da egokia*

PAM- STAMP programan zenbakizko simulazioan erabilitako txaparen tamaina aztertu edo aldatu egingo da horren arabera. Era berean honen kokapena piezarekiko ere. Lortutako emaitzen arabera emaitza bat edo bestea lortuko dugu gure emaitza optimora hurbilduz edo urrunduz. Modu honetan segurtasun marjina automatikoki sortzen dugu. Hau emaitzen atalean garatuko dugu sakonago.

- *Emaitza experimentalek ez dute kalkulu teorikoak baliozkotzen*

Simulazio prozesu osoa egin ondoren, emaitzak interpretatzen dira eta makina batean egiaztatzen dira zuzenak diren edo ez. Horrelakoetan, prototipoen gehieneko hobekuntza bat egiten da, eta bertan, simulazioaren parametroak aldizka aldatzen dira, ahalik eta denbora gehien aurrezten saiatzen garelarik.

Hutsegite eta efektuen analisi modala, diseinu batean gerta daitezkeen hutsegite potentzialaren ebaluazio eta analisia ziurtatzeko tekniko analitiko da.

Adituen ezaguera eta esperientzia oinarrituz, huts egin dezakeen elementu bakoitza sistematikoki analizatzen duen tresna bat da, eta osagai edo sistemen diseinu


prozesuan erabiliko da. Planteamendu sistematiko horrek, arduradunak edozein diseinu- prozesutan jarraitzen duen disziplina mentala orekatu eta formalizatzen du.

Helburua, akatsak ekidingo dituzten beharrezko akzioak identifikatzea.

Lehenik, CATIA-k sortutako pieza CAD-aren geometria sortzen da. Ondoren, pieza hori lortzeko beharrezkoa den estapanazio prozesua definitzen da, eta simulazioan erabiltzeko hileko gainazalak CATIA-n eraikitzen dira. Simulazio eredu PAM-STAMP-en konfiguratu da, beraz, dagoeneko definitutako prozesua marra-gainazalekin erreproduzitu daiteke. Baldintza nominaletan prozesua simulatu eta balioztatu ondoren, sendotasuna aztertzen da. Bertan, lehengoak piezaren serieko ekoizpenean zehar aldatzen diren faktoreak identifikatzen ditu eta bideragarritasunaren eragina izan dezake.

Ondoren parametro ezberdinen konbinazioaren bidez kalkuluak egiten dira eta guztien emaitzak aztertzen dira. Azkenean lortutakoaren arabera, prozesuaren sendotasuna ebaluatu egiten da eta kontrolerako jarraibide posibleak egin behar dira prozesuaren parametroen eraginik handienean definituta.

Proposatutako konformazio prozesua 6 eragiketa independenteek osatzen dute, hau da, transferentzia mota bakar batean bilduko litzateke. Hau ondoko irudi bietan, 31. irudian eta 32. irudian, ikusi ahalko dugu.




### 31. irudia: Enbutizio eta ebaketa trokelak

Eragiketa bakoitzak OP darama aurretik eta gero zenbaki bat esleituta, eragiketa bati lotuta dagoena.

OP 20- ENBUTIZIOA

OP 30- EBAKETA (ZULAKETA)

OP 40- EBAKETA (ZULAKETA)



### 32. irudia: Ebaketa eta toleste trokelak

Eragiketa bakoitzak OP darama aurretik eta gero zenbaki bat esleituta, eragiketa bati lotuta dagoena.

OP 50- EBAKETA

OP 60- TOLESTEA

OP 70- TOLESTEA

Hauek proiektuaren arabera eta egin beharreko eragiketa kopuruaren arabera alda daitezke. Bideragarritasuna berme bidez simulatzeko ebaluatu ahal izateko, garrantzitsua da errealitate materialaren ordezkari bat izatea.

PAM- STAMP-en beharrezko taula materiala konfiguratu da, arreta berezia jarritz datu esperimentalen gogortze ereduaren egokitzeari. Bi irizpide erabili dira simulazioen emaitzak ebaluatzeko.

1. Alde batetik, konformazio-mugaren diagramak (FLD), zorrotasunaren arabera aurreikusitako porrota aurreikusteko erabilitako hutsegite nagusia.
2. Beste alde batetik, porrota argaltzeko irizpidea. Akatsa gertatzen da %25-a baino gehiagoko lodiera murrizten bada.

Hortaz, ondorio bi aipa ditzakegu.

- Ondorio ekonomikoak :
  - Inbertsio ekonomikoa denbora laburrean berreskuratzea bilatzen da.
  - Ez du baliabide ekonomiko handirik behar.
  - Proiektu errentagarria bilatzen da, prozesuaren produktibitatea hobetzeko asmoz.
  - Proiektu laburra izatea bilatzen da prozedura hobetuak sartuz.
  
- Ondorio teknikoak:
  - Makina erramintaren alorreko edozein enpresarentzako Know-how garrantzitsua da.
  - Merkatuan dagoen trokela erabiltzen da, ez da inolako inbertsiorik egin behar.
  - Enbutizioaren prezisioa hobetzea baimentzen du balazten ekarpena eginez trokeletan.
  - Langile gutxi behar dira gure pieza lortzeko.

Honenbestez, arriskuen kudeaketa proiektuen arriskuei erantzuna, analisia eta identifikazioa egiteko prozesuak dira.



INDUSTRIA MEKANIKO INGENIERITZA GRADUA  
**GRADU AMAIERAKO LANA**

***AUTOMOZIO SEKTORERAKO TXAPAZKO  
OSAGAIAREN SIMULAZIO NUMERIKOA***

***2. DOKUMENTUA- LANAREN GARAPENEAN JARRAITUTAKO  
METODOLOGIA***

**Ikaslea:** Batiz, Gangoiti, Iraitz

**Zuzendaria:** Ortega Rodriguez, Naiara

**Kurtsoa:** 2017-2018

**Data:** 2018/ 06/ 15

Atal honetan zehar funtzioen deskribapena garatuko dugu, hau da, simulazioa burutzeko jarraitutako prozedura eta egindako kalkulu edo algoritmoak. Era berean irudiak eta grafikak gehituko ditugu deskribapenean lagungarri izango direnak.


## 2.1.FUNTZIOEN DESKRIBAPENA

Antzina metodo informatikoen gabezia zegoenean beste era batetara egiten zen jarraian azalduko dugun guztia. Ohikoena proba/errore metodoa zen. Hau metodo heuristikoa zen, proposiziozko eta prozesala. Metodo honen funtsa probatzea eta egiaztatzea da. Hala ere, guzti hau egiteko enpresariak denbora luzez gain kostu altua beregain hartu behar zuen. Guztiak bezala teknologiak eta metodologiak aurrera egin zuten. Teknika berriak agertu ziren baita programa informatikoak ere. Hain zuzen ere, horietako bat PAM STAMP dugu zein gure proiektua garatzeko erabiliko dugun.

### 2.1.1.PROGRAMAREN DESKRIBAPENA ETA ERABILTZEA


Emaitza optimoa izan den jakiteko jarraian jarraitu dugun prozedura azalduko dugu pausuz pausu eta argazki ezberdinak erantsiz.

Automozio sektorerako txapazko osagaiaren simulazio numerikoa garatzeko PAM STAMP programaren laguntza izan dugu. Behin programa irekita honako 33. irudia ikusiko dugu eta bertan lan egingo dugu hemendik aurrera.




33. irudia: PAM-STAMP programaren hasierako leihoa

Jarraian proiektua irekitzeari ekingo diogu edo berri bat sortzeari. Honetarako, *Project* atalean klikatuko dugu eta baldin aurretik sortua badago irekiko dugu *Project* → *Open* bidez. Hau nola egin ondoko 34. irudian ikus genezake.




**34. irudia:** Proiektu baten irekitze prozesua

Honela ez bada berria sortuko dugu, ikusi 35 eta 36. irudiak, *New* → *Project* bidez. Nahi den direktorioan sartzen da eta izen bat ematen zaio.




**35. irudia:** Proiektu berri baten irekitze prozesua




**36. irudia:** Proiektu berriaren prozesaketa eta arazo konpontzaile mota

Behin *Ok* klikatuz leiho urdin bat agertuko da gure pantailaren eskuinaldean, 37. irudia, non geometria inportatu ahal izango dugu (*import part cad*) edota geometria sortuz gure kabuz.

Lan fluxuarekin jarraituz, aurretik esan bezala, kontutan izan beharra dugu piezaren geometria gainazal bat behar duela *.iges* formatuan gordeta izan behar dena, ikusi 38. irudia.




**37. irudia:** Geometria inportatzeko esteka



**38. irudia:** Inportatzen den geometriaren aukeraketa *Import eta Transfer* egin aurretiko leihoa


Aipatzen ari garen prozedura egin ondoren, ondoko 39. irudia, prest gaude lanean hasteko.



**39. irudia :** Pieza Diemaker atalean lan egiteko prest duguneko leihoa


### 2.1.1.1. DIEMAKER


Behin dugun pieza aztertuta edo ez jarraitu beharreko pausuak berdinak dira prozeduran zehar. *Diemaker* atalean, sistema koordinatuaren orientazioa aldatuko dugu *Tipping* atalean klik eginez eta ondoko pausuak jarraituz (hau nola egin 40, 41,42 eta 43. irudietan ikus dezakegu):



**40. irudia:** Sistema koordinatuen orientazio aldaketa


✓ *Sistema aktiboaren aldaketa*






41. irudia: Sistema globaletik koordinatu sistemara aldaketa

✓ Ardatzaren noranzkoa aldatu




42. irudia: Estanzazioa z ardatz positiboan

✓ Optimizatu



**43. irudia:** Prozesua burutzeko azken pausua

✓ *Set gure irudian aplikatu daiten*




**44. irudia:** Pieza beste perspektiba batetik (z +)


Ondoren zuloak itxi beharko ditugu, ikusi 44. irudia, aurrera jarraitu aurretik, bestela estanpatzean bihurtu eta desplazatu egingo dira deformazioak sortuz.

Honetarako *diemaker* atalean → *part preparation* → *part preparation* egin eta jarraian ikusten dugun 45. irudia irekiko da. Ondoren *holes* estekan klik egin beharko dugu 47. irudian ikusiko dugun bezalaxe eta 46. irudian ikusten diren zuloak itxiko dira.






**45. irudia:** Zuloak ixteko jarraitu behar den prozedura




**46. irudia:** Pieza bera zuloak itxi aurretik



**47. irudia:** Zuloak ixtean ikusiko den leihoa


*Holes* atalean zulo guztiak itxiko ditugu bat izan ezik ( seigarrena).



**48. irudia:** Itxi gabeko zuloa


48. irudian ikusten da nola zulo bat ez den itxi. Salbuespen hau beste era batetara konpondu beharko dugu. Atal hau itxi eta menu nagusiko elementu batekin baliatuz zulo bat eratuko dugu elementu finituen bidez klik ugari eginuz pieza nagusian.

Behin zulo hau dugula ixteko *Rolling Cylinder* atalean klik egingo dugu *diemaker* → *part preparation* → *part preparation* barnean laugarren esteka, 49. Irudia.




**49. irudia:** Zilindroa eratzeko leihoa

Aurretik egindako zulo horren gainean zilindro bat egingo dugu, ikusi 49. irudia, bi puntuetan klik eginuz eta jarraian *holes* atalean seigarrenko zulo hori itxi egingo dugu, ikusi 50. irudia, aurrerantzean arazo gehiagorik emango ez duelarik. Honetarako aurretik azaldu den teknika jarraituko da.




**50. irudia:** Zulo guztiak ixtean dugun leihoa

Pantailan honakoa ikusiko dugu, 51. irudia:



**51. irudia:** Holes close eginda dugun leihoa

Alboetako tolesturak ere ezabatu beharra izan dugu aurreragoko erroreak saihestu ahal izateko. Hala ere, pieza ez da guztiz ondo geratzen eta *U end* hirugarren estekaren bidez biribiltzeak egitea lortzen dira puntu konkretu batean ertz arraroa geratzen baita, ikusi 52. irudia.




### 52. irudia: Ertz biribiltzeak lortzeko U end leihoa


Azkenik piezaren itxura hobetzen da forma jarraitua emanik perimetro osoan zehar.

#### 2.1.1.2. BLANKHOLDER

Hurrengo pausua pisadorea zehaztea izango da. Hau programak defektuz sortzen duena izan daiteke edo guk molda dezakegu forma laua edo forma kurboa emanaz. 53. irudian defektuzkoa nola hautatu ikusten dugu eta 54. irudian aldiz 2D aukeran klik eginez zein distantziatara gauden edo txaparen itxuran moldaketak egiterako orduan bertan ikusteko aukera dugu.




**53. irudia:** *Blankholder* aukeraketa




**54. irudia:** Txaparen itxura eta distantzian aldaketa egitea baimenduta dago

### 2.1.1.3. ADDENDUM

Addendum-ak azken diseinua nolako izango den influentzia handia du. Honen ikasketa aspekturik garrantzitsuena da eta hirugarren pausu hau 55 eta 56. irudietan nola egin ikusten dugu.




55. irudia: Addendum motaren aukeraketa




56. irudia: Addendum gainazalaren eraketa

#### 2.1.1.4. SIMULATION MODEL


Erramintekin hasi aurretik azken pausu bat dugu, *Trim blankholder*-ra, 57. irudia, eta *Simulation model*, 58. irudia, gehitzea egitea. 59. irudian pausu hauek jarraituz gure piezak duen itxura dugu ikusgai.



57. irudia: *Trim Blankholder* aukeraketa




58. irudia: *Simulation model* aukeraketa



59. irudia: Set Up eginda piezaren itxura

### 2.1.1.5. ERRAMINTEN TRANSFERENTZIA (update setup):




**60. irudia:** Erraminten transferentzia

Behin erraminten transferentzia eginda, 60. irudia, gure pieza prest dago simulazio numerikoko atalarekin hasteko.

#### 2.1.1.5.1. XAFLAREN EZAUGARRIEN EDITOREA


Xafla objektua eratzten dugu *Blank* botoia klikatuz eta + eginez. Lodieraren arabera hiru aukera ditugu eta bat aukeratu beharko dugu. Guk gainazalekoa aukeratuko dugu oso fina dena. Gero, inportatu edo sortuko dugu 4 punturen bidez. Guzti hau 61. irudian ikus genezake.





**61. irudia:** Txaparen sortzea

Hau saretzea da eta automatikoki egin dezake edo kalkulagailua klikatuz balio ezberdinak sartuz. Guk azken aukera bidez termino bi definituko ditugu aurrerantzean garrantzi handia izango dutenak: biribiltze erradio minimoa eta lodiera, ikusi 62. irudia.




**62. irudia:** Biribiltze erradioa eta lodiera zehaztapena

Xafla guztiz definiturik izateko materiala aukeratzea baino ez zaigu faltako. Datu basetik norma bat aukeratuko dugu eta hortik aurretik kalkulagailuan

definitu dugun lodieraren araberako material lodiera bera aukeratuko dugu. Hau ondorengo 63. irudian dugu ikusgai.

Normalean hotzeko konformaziorako karbono urriko altzairuak (bere harikortasuna dela eta) eta lodiera gutxiko txapak ( 1,2 mm gutxi gora behera) erabiltzen dira.



**63. irudia:** Materialaren aukeraketa datu basetik

Ijezketa norabidea x ardatzean aukeratuko dugu eta lodiera aurrekoaz bat doala ziurtatu beharko dugu hurrengo pausura jarraitu aurretik. Hau 63. irudian egingo dugu.


Txaparen propietateak aurretik jasan dituen ijezketa prozesu eta tratamendu termikoen menpe daude:

- Anisotropia: Propietateak ez dira berdinak norabide guztietan ijezketan jasandako norabideko berkrizaltzea dela eta (forjako norabideko fibratuaren antzera).
- Tentsio egoera aldakorrek piezaren gune ezberdinetan.

#### 2.1.1.5.2. ERREMINTA ETA OSAGARRIEN EDITOREA

Prozesuaren geometria daukagun elementuen geometriara egokitu behar dugu, simetria planoaren eraketa burutu behar *erreminta* ikonoa klikatuz.


Lehen pausua ,*OP parameters* klikatzea izango da, 64. irudia,



**64. irudia:** Parametroen definitzea; biribiltze erradioa eta estanzazio ardatza zehaztuz


Eta + puntuan klikatuz simetria plana eratuko dugu era arin batean. Kolokialki ulertzeko ardatz bien noranzkoa sistema globalaren berdina izan behar da.

Jarraian erremintetara joko dugu. *Tools set* atalean, ikusi 65. irudia, zinatika aukeratu dugu pestainan akzio bikoitzeko prentsari dagokion irudia aukeratuz (lehen aukera). Ziurtatu beharra dugu *punch to die* norabidea egokia dela (ardatz berdea goranzko norabidean).




**65. irudia:** Zinematikaren eta lodieraren zehaztapena

*Advanced* atalean klik eginez ondoko 66. irudia irekiko da eta defektuz agertzen da offset-a matrize puntzoi tartea % 10- a dela ikus genezake. Jarraian simulazio emaitza eta FLD diagrama aurkezten da, ikusi 67. irudia, kasu honetarako. Gure simulazio emaitzak honekin egin dira, hau da, inolako aldaketa egin gabe *advanced* atalean.




66. irudia: Advanced parametroak




67. irudia: Simulazioaren FLD diagrama

Hurrengo adibidean aldaketa bat egin da *trigger angle* eta *transfer level*-en eta emaitzak aztertuko ditugu orain, ikusi 68 eta 69 irudiak.




**68. irudia:** Advanced parametroen aldagaien aldaketa




**69. irudia:** Simulazio emaitzak eta FLD diagrama aldagaien aldaketarako


Orain programari esan beharko diogu zein geometria dagokion elementu bakoitzari. Hau da, erreminta bakoitzerako, ikusi 70, 71 eta 72 irudiak, *build from definition* klikatu eta jatorri egokia elementu bakoitzerako aukeratu beharko dugu.



**70. irudia:** Matrizearen metodoaren zehaztapena




**71. irudia:** Puntzoiaren metodoaren zehaztapena



**72. irudia:** Txaparen metodoaren zehaztapena

Behin amaituta ondokoa ikusiko dugu, 73. irudia :




**73. irudia:** Lehen atal biak bukatzean programaren ezker partean ikusten dena.

### 2.1.1.5.3. FRENOEN EDITOREA

Balaztak maiz erabiltzen dira materialaren fluxua lokalki kontrolatzeko enbutizio eragiketa zehar, haustura zimurrak saihestuz. Kontrol hau sarritan lortzen da balaztak zapaltze indarrak konbinatuz. Prozedura hau nola egiten den 74. irudian ikus daiteke.

Honenbestez, balaztak erabiltzen dira metalezko xaflaren fluxua kontrolatzeko operazio zehar hodiaren barrunbean zehar, gutxieneko materiala erabiliz zigilatutako pieza optimoa lortzeko.






#### 74. irudia: Enbutizio prozedura

Prozesu fasean zehar, balzatak posizioa, iraupena eta atxikipena aldatzen dira, gutxieneko materiala erabiliz zigilatutako pieza optimoa lortzeko. Balzatak eskuz ere aldatu daitezke martxan jartzeko fasean, nahi duzun prozesua lortzeko. Oro har, balzatak erabiltzen direnean, alderdi batzuk hartu behar dira kontutan konformazio optimoa lortzeko:

1. Zapaltzailea ixten den bitartean beharrezkoa den presio indarra.
2. Zapaltzailea ixtean txaparen formak balzattetan duen eragina.
3. Enbutizio prozesuan zehar erramintak itxita mantentzeko beharrezkoa den indarra.
4. Balazta gainditu duten eremuetan materialen propietate aldaketak (deformazioak eta tentsio osagarriak) planoan eta lodieran, gogortze gehigarrian, mehetze gehigarrian.
5. Moldatu den txaparen formatua.


Baina balazten erabilera intentsiboak, eta beharrezkoak diren aldaketak, moldaketa simulazio batean balzatatzeak ikuspegi egituratu bat eskatzen dute. Simulazio eredu horiek aldatzea azkarra eta erraza izan behar da eta ez du eraginik izan kalkuluaren denboran. Hala eta guztiz ere, arreta berezia jarri behar zaie frekuentziaren ezarpenari dagokionez, balzatatze eraginkorreko ereduak estanzazio simulazioan duen garrantzia handia duelako.

Hortaz, + klik egin eta izena ematen zaio edo inportatu egiten da, 75. irudia.



**75. irudia:** Frenoen eratzea

*Tools* atalean matrize eta pisadorearen link-a definitzen da *opening direction*-tzat z hartuz, ikusi 76. irudia.



**76. irudia:** Matrize eta zapaltzailearen definizioa

Azkenik, *blank* atalean frenoak egiten duen indarra definitu beharko dugu. *Uniform* aukeratu eta nahi dugun frenoaren geometria aukeratu beharko dugu parametro geometrikoak definituz, ikusi 77. irudia.


$F_r$ = pisadoreak txaparen gainean egindako indarra

$F_o$ = frenoaren kontra egindako indarra, pisadoretik irristatzen denean


Aukeratutako geometriaren arabera parametro batzuk definitu beharko ditugu eta kalkulagailuan, 78. irudia, hauen grafika ezberdinak ikusiko ditugu.

Honen aukera egingo dugu balaztaketa handia egitea nahi bada edo balazta txikia egin nahi denaren arabera. Lehen eta azken aukerak asko eutsiko dute, hau da balaztatze handia egingo dute. Besteek aldiz, eremu txikiagoan.

Grafikoetan balioa ezkerreruntz edo eskuineruntz eramanez gauzak aldatuko dira, egin nahi den efektu handiago izatea edo txikiagoa izatea nahi denean. Honek gure piezan nolako eragina duen aztertu beharko dugu eta erabakia hartu.




**77. irudia:** Balaztaren indarraren definizioa




**78. irudia:** Kalkulagailuaren aukeraketa


Esan bezala geometriaren arabera grafika ezberdinak ikusiko ditugu: R1, 79. irudia; hurrengoa, 80. irudia, R2; jarraian alpha grafika, 81. irudia; ondoren D aldagaiaren grafika dugu, 82. irudia eta azkenik frikzio aldagaiaren grafika dugu, 83. irudia.




79. irudia: R1 aldagaiaren grafika




80. irudia: R2 aldagaiaren grafika



81. irudia: Alpha aldagaiaren grafika



82. irudia: D aldagaiaren grafika




**83. irudia:** Frikzio aldagaiaren grafika

*Set values* eginez balioak definiturik geratuko dira. Bestelako balaztarik definituz gero prozedura bera jarraitu beharko dugu.

#### 2.1.1.5.4. EBAZPEN MATEMATIKOKO MAKRO-EN EDITOREA

*Process* ikonoa klikatu behar dugu eta makroa kargatzean stamp/feasibility direktorioan *Stamping Only Double Action* aukeratu eta open klikatu beharra daukagu, ikusi 84. irudia.




84. irudia: Makro editorearen zehaztapena

Taldean ikusi nahi diren elementuak klikatu beharko dira eta parametroetan alda daitezkeen ezaugarriak ditugu, zapaltzailearen indarra esaterako.

#### 2.1.1.5.5. SOLVER


Host barnean azken pausu batzuk baino ez zaizkigu falta prozesatzen hasi aurretik, ikusi 85 eta 86 irudiak.

- *Izena eman*
  - Makina → lokala
  - Sistema operatiboa → Windows 32 bit



**85. irudia:** Host izena ematea


- *Solver: Shared eta prezisio bikoitzekoa*



**86. irudia:** Arazo konpontzailearen definizioa


- *Launch*

Jarraitutako etapa ezberdinen irudiak aurkezten ditugu jarraian, 87,88,89 eta 90. irudiak.







**87. irudia:** *Solver Launch* atalaren 1. etapa



**88. irudia:** *Solver Launch* atalaren 2. etapa




**89. irudia:** *Solver Launch* atalaren 3. etapa




**90. irudia:** *Solver Launch* atalaren irudia

Honela simulazioen kalkuluei hasiera emango diegu 91. irudian ikusten dugun legez.




**91. irudia:** Kalkuluen hasiera

Dena ondo dagoela egiaztatu behar da. Honetarako data *check* ikonoa sakatu eta akatsik ez dagoela egiaztatzen dugu, 92. irudia. Jarraian simulazioari ekingo diogu, 93. irudia, eta emaitzak izango ditugu ondoren, 94. irudia.




**92. irudia:** Arazorik ez denaren ziurtapena



**93. irudia:** Simulazio hasi denaren baieztapena

Simulatu eta emaitzak ikusiko ditugu eta etapa bakoitzean duen balio ikusi ahal izango dugu.



**94. irudia:** Simulazioaren FLD diagrama

Aztertzen diren emaitza motak hurrengoak dira:

- **Argaltzea**


Enbutizio prozesua material fluxuan eta bere argaltzean oinarritzen da. Argaltzean materiala gogortzen baldin bada, materialaren ahultasuna txikia da eta gai da inguruko materiala berarekin eramateko. Materiala ez bada gogortzen, ahultasun gune bat sortzen da eta materialaren haustura ematen da.

Ohiko formulazioa ez da nahikoa fenomeno hau deskribatzeko, elementu normalen estresak eta tentsioak nahikoak ez diren moduan deskribatzen baitira. Hori dela eta, programak litzeko aukera ematen duen elementu partikularra du: TTS- lodiera estresaren bidez.

Elementu honek kontraste txikiak, estres normala eta 3D-ko plastikotasuna kontuan hartzen ditu. Automatikoki aktibatzen da fenomenoak litzaten direnean.

Argaltzea formagarritasunarekin erlazionatuta dago zuzenean. Bistaratzeko, hiru eremu nagusi bereizten ditugu grafikoan.

Kasu horietan betetzen du  $\epsilon_1 + \epsilon_2 + \epsilon_3 = 1$ , non  $\epsilon_3$  argaltzea den. Hori dela eta, argaltzea deformazio nagusi eta deformazio sekundarioaren arteko batura da.




**95. irudia:** Deformagarritasun grafika zonalde ezberdinetan banatuta

Argaltze eremuak formagarritasun eremuak bezala edo antzera banatzen dira aurreko 95. irudian ikusten den bezalaxe.

Txaparen mehetzea bistaratzeko beste komandu bat *thinning* da, eta horren balioa erakusten da, ikusi 96. irudia. Onargarria izan dadin pieza eta nahikoa luzatua mehetze maximo onartua (% 25) da eta mehetze balio minimoa (0) da.


Beltzez agertzen diren eremuak nahiko argaldu ez direnak izango dira. Oso logikoa da gune hauetan zimurrak agertzea eta konpresio guneak. Bestalde, laranja eremuak nabarmentzekoak dira, eta, ondorioz, haustura guneekin bat datoz.

Jarraian gure simulazioan lortutako mehetze irudi batzuk aurkeztuko ditugu, 97, 98, 99, 100 eta 101 irudiak non komandu ezberdinak klikatu diren eta irudi ezberdinak ikus ditzakegu.




**96. irudia:** Piezaren argaltze diagrama *Smoothed* komandua klikatuz

**Smoothed (eskalarra):** Nodoko balio bat aurkezten du. Hardware Gouraud algoritmoak elementuak definitzen duten elementuen interpolazioa aurkezten du, ikusi 96. irudia. Bistaratze hau gomendatzen da nodoaren ingurunea ikusi nahi denean.




**97. irudia:** Piezaren argaltze diagrama *Banded* komanduan klikatuz

**Banded (eskalarra):** Nodoko balio bat aurkezten du saretze baten ondorioz. Guzti hau aurreko 97. irudian ikus dezakegu.




**98. irudia:** Piezaren argaltze diagrama *Isolines* komanduan klikatuz

**Isolines (eskalarra):** modeloan isolerroak erakusten ditu. Lerro hauetako bakoitzak inguruneko posizioaren balioa konstantea aurkezten du, ikusi aurreko 98. irudia.




**99. irudia:** Piezaren argaltze diagrama *Normal* komandua klikatuz

**Normal (eskalarra):** elementuaren balioa aurkezten du. Ingurune nodalarentzako, abiadura eta nodoko distantzia adibidez, elementuaren balioa elementua definitzen duten nodo guztien batz besteko balioa da. Bistaratze hau gomendatzen da elementuaren ingurunerako, ikusi aurreko 99. irudia.



**100. irudia:** Piezaren argaltze diagrama *Ingeniaritza balioa*




101. irudia: Piezaren argaltze diagramaren *balio erreala*

- *FLD*

Plastikozko ezegonkortasuna normalean ohartarazten den arazoa da, xafla formako eragiketetan, produktu akastunak eragiten dituena. FLD parametro garrantzitsua da produktu ez akastunen produktuen fabrikazio prozesuan kontuan hartu beharrekoa.


Digrama honek piezen puntuen egoera erakusten du enbutizio ondoren. Deformazio nagusi ( $\epsilon_1$ ) eta bigarren mailako deformazio ( $\epsilon_2$ ) arteko erlazioa da. Hau ondoko irudian ikus dezakegu,





**102. irudia:** Deformazio nagusien diagrama zonalde ezberdinetan banatuta

FLD kurba piezaren materialaren araberakoa da. Bertan, argi eta garbi hiru eremu bereiz ditzakegu, ikusi 102. irudia. Lehenengo zatian bildutako puntuek FLD kurba gainditzen duenak dira, era hausturaren ondorioz sortzen dira. Hauek lehen konpondu beharrekoak izango dira.




**103. irudia:** Kolore bakoitzari esleitzen zaion arriskua edo gune segurua


Bigarren eremua bezeroak markatutako eremua da, gehien murrizten dena hartuko da beti, hau da errestriktiboena. FLD kurbaren % 80 puntu inguruk gainditzen dute, hauek ere hobetu beharrekoak dira, lehen eremukoak bezain premiazkoak ez diren arren. Puntu horiek hobetzeko aukera batzuk dira; zapaltzailearen aldaketak, addendum aldaketa, balazta aldaketa edo enbutizio altuera.

Azkenik, hirugarren eremua dugu, puntuek ez dute haustura aurreko arazoak aurkezten, hala ere zimur edo luzatze arazoak izan ditzakete.

FLD diagramak aurkezten duen kolore sorta jarraituz, behin enbutituta pieza baten formagarritasuna aurkezten da. Ikus dezakegu nola gure pieza formagarritasun limiteen barnean dagoen. Argi eta garbi ikusten dira baita sortutako zimurrak, ikusi 103 eta 104 irudiak. Hauek tresna kaltetu dezakete, bizitza erabilgarria murriztuz. Hori dela eta, komeni da hauek txikitzea. Arazo honen irtenbide bat enbutizio altuera murriztea izango da.



104. irudia: Piezaren FLD diagrama



105. irudia: Piezaren simulazioaz bat agertzen den diagrama

## ▪ *Springback*

Metalezko piezetan gai garrantzitsuena da bereziki inar handiko aluminio edo altzairuzko osagaiak estanpatzean. *Springback*-aren ondorengo forma ez da tolerantzia barruan egongo eta agian xede horretarako egokiak ez direnak.

*Springback*-aren aurreikuspen zehatzak berreskuratze elastikoa konpentsatzeko eraginkortasuna ematen du, tresna geometrian egindako aldaketak aipatzen dituen, berreskurapen ondorengo forma nahi den forma bermatzeko diseinatuta. Berreskuratze eta ondorengo zuzenketa fidagarria da eta programaren funtsezko arrakastak dira.


Berreskurapen elastikoa pieza baten aldaketa geometrikoa da deformazio prozesuaren amaieran, konformazio tresna batetatik atera denetik. Enbutizioa eta luzatzeen deformazioa bukatzean txapa metalikoak birmoldatuen elastikotasuna berreskuratzen da eta, ondorioz, bukatutako pieza zehaztea eragiten du. Hortaz, txapa gune elastikoan lanean ari denez momentu berreskuratzaile bat agertzen da. Alde batetik, zenbat eta elastikotasun muga handiagoa izan, gero eta errekuerazioa handiagoa da. Bestalde, zaila da alde zurretik jakitea: simulazio numerikoa edo aurre saiakuntzak.

Soluzioak:

- Txapa gain flexionatu
- Beroan lan egin

Ondorioz, fabrikazio industriak hainbat arazo praktiko ditu: lehenik eta behin, errekuerazio elastikoaren ondoriozko piezaren geometria auresatea eta bigarrenik, efektu horiek konpentsatzeko tresna egokiak diseinatzea.

Material berrien aplikazioaren ondorioz, arazo kopurua areagotzen da. Material horientzako osatutako piezak *springback*-az kaltetuago daude ohiko altzairuzko piezak baino. Metalezko akats tipikoei dagokienez, hala nola pausuak eta zimurrak, xafla tentsioa erabakigarria da. Errekuerazio elastikoa agertzen bada, modelo horiek ez dira nahikoa deformazioa saihesteko. Kasu honetan, esfortzuak erabakigarriak dira eta doitasun handiago bat dakartzate berarekin, ikusi 106. irudia.



**106. irudia:** Tentsio-ingar diagrama

Tresnen garapenean zehar, *springback*-a softwarearekin konpentsatzen da pieza beharrezko dimentsioekin irtetzeko zuzenean. Honela minimora murrizten dira proba zikloak tresnen garapen faseetan.

Baliteke simulazio softwareak hasiera hasieratik errekupeazio elastikoa detektatzea eta hau konpentsatzea ere. Horrela tresna prozesuak hobetu egiten dira eta ekoizpen kostuak nabarmenki murrizten dira. Errekupeazio elastikoaren konpentsazioak tresnen edo ondorengo prozesuetan aldaketak garestiak izateko arriskua minimizatzen du. Jarraian 107. irudia dugu non pieza baten berreskurapen elastikoa eta tentsio-ingar diagrama dugu formakuntza prozesuan zehar.




Figure 1. Elastic springback





Figure 2. Stress and strain during forming.

**107. irudia:** Berreskurapen elastikoa eta tentsio-ingar diagrama formakuntza prozesuan

Honenbestez berreskurapen elastikoaren erantzuna lortzeko jarraituko dugun prozedura ondokoa izango da:

- **Fitxategi berria ireki**
- **Project -> picking of computing model -> aukera.rst**


Behin proiektua ireki dela prest gaude kalkuluekin hasteko baina lehenbizi *Project* atalera jo behar dugu eta aurkezten den geometria guztitik soilik *txapa* aukeratu beharko dugu. Behin hau eginda *Process* atalera joko dugu.




**108. irudia:** Txaparen aukeraketa

- **Process -> macro -> stamp -> high quality -> trimming springback**  
(Boundary type: automatic rigid body removal)

Jarraian prozesu atala burutzeari ekingo diogu eta horretarako pausu batzuk jarraitu beharko ditugu. Behin hau eginda ondoko 109. irudia ikusiko dugu eta gure piezari aplikatuz prest gaude *Solver* atalarekin hasteko eta programaren ezker partean ondoko 110. irudia ikusiko dugu.



109. irudia: Process ataleko azken leihoa




110. irudia: Process atala burututa dagoeneko leihoa

- **Solver**

Hiru etapetan kalkulatzen du ( lehena, *stamping*-aren azken emaitza).


Solver-a ireki eta Host mota aukeratu eta Ok klikatuko dugu. Jarraian errorerik egotekotan edo ez leiho bat irekiko da eta hemen solver-a prest dago lanean hasteko eta konputazioari ekingo dio ondoko 111. irudiko emaitzak emanez.



**111. irudia:** Springback-aren soluzioak

**Emaitza ondo ikusteko:**


- Lehen etapa klikatzen dugu, ikusi 112. irudia, eta -> *project* -> *export* -> *mesh* -> *berreskurapen elastiko gabeko pieza* izena jarriko diogu.



**112. irudia:** Soluzioaren lehen etapa


- Azken etapa klikatzen dut, ikusi 113. irudia, eta -> *project* -> *import* -> *mesh* -> *berreskurapen elastiko gabeko pieza* izena jarriko diogu






**113. irudia:** Soluzioaren azken etapa


Bukatzeko sekzio bat burutzen dut eta emaitza biak ikusten dira ( berreskurapen elastikoaren aurretik eta ondoren), ikusi 114. irudia.




**114. irudia:** Sekzioa burutzeko prozedura



**115. irudia:** Piezaren sekzioa



116. irudia: Solver-aren etapa bien irudia



117. irudia: Bi puntuen arteko distantzia

## 2.2. EMAITZEN DESKRIBAPENA

---

### 2.2.1. SARRERA. AUTOMOZIOA GAUR EGUN

Automozio sektorea ekonomiaren sistema globalaren dinamismo handiena izan duen sektoreetako bat da, eta azken produktuen aldaketa gehien izan dituen. Gaur egun, “garraio iraunkorra” barruan garatzen ari da, honako kontzeptu hauetan oinarrituta: segurtasuna, erosotasuna ahaztu gabe eta ibilgailuen komunikazio beharrak asetzeko, ingurumenarekin iraunkortasuna eta energia eraginkortasuna, lehiakortasuna eta onura ekonomikoa.

- Ingurumena eta baliabideak:

Ingurumen faktorea, arinagoa, kontsumo txikia eta kutsatzaile txikiko ibilgailuak (CO<sub>2</sub>, NO<sub>x</sub>, etab.) fabrikatzea eskatzen du. Ibilgailuen emisioei buruzko araudi zorrotzak daude, esaterako, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren Kiotoko Protokoloa, ibilgailuaren kutsadura posiblea kontutan hartuta diseinutik abiatuta. Horretarako, ibilgailu eraginkorrenak propulzio eta transmisio sistemak berrikusten dira.

Kontutan izan behar den beste faktore bat ingurumen faktorea da ibilgailuen erabilera birziklatzea posiblea, ibilgailuen inpaktu ekologikoak bere diseinutik erretiratzea eragiten duen modu bat diseinatzen laguntzen duena.

Gaur egun, ibilgailu hibridoak (elektrizitate elektrikoa eta barneko errektuntzako motorra duten ibilgailu propulzio alternatiboak) eta erregai-pilen ibilgailuen garapena gaur egungo ibilgailuentzako alternatiba gisa ikertzen ari da.

- Segurtasuna:

Segurtasun faktorea ibilgailuen portaerari eta erosotasunari zuzendutako eskakizun batzuk sorrarazten ditu, nabarmenduz:

- **Inpaktu murriztea:** inpaktuaren azterketa (egiturazko portaera) eta ereduak sortzea, sentsoen , materialen eta ibilgailuen teknologien sarrera, eragina arintzeko oinezkoen babesa.

- **Prebentzioa:** istripuen azterketa, gidatzeko laguntza aurreratuen sistemak ezartzea, ibilgailu bereziak (garraio kolektiboa, minusbaliatuak, ...).
- **Mugikortasuna:** adibidez, gidariko komunikazioa sistemak, ibilgailua eta errepidea lortzen dituzten sistemak...

Laburbilduz, bilatzen dugu:

- Produktuaren garapenean inplikazioak: ibilgailuaren garapenaren bideragarritasun azterketa fabrikazio prozesuari.
- Iraunkortasuna areagotzea: autoaren garapenaren fase guztietan eta bizitza ziklo osoan aplikatzea, desmuntatzea, ber-erabilpena eta berreskurapena barne.
- Fabrikazio teknologia, komunikabidea eta produkzio erakunde barria: kudeaketa tresnen eta produkzioaren exekuzio sistema berriak.
- Material berriak eta horien inplikazioak diseinuan eta/edo ekoizpenean.


## 2.2.2. DISEINU ETA FABRIKAZIO PROZESUEN BILAKAERA

Material berri hauek industrian agertu izanak fabrikatzaileek diseinu prozesua berrikustea ekarri zuen, diseinu integralaren kontzeptuak eta ingeniariak konkurrenteak sortuz: pieza hori zenbait baldintza funtzionaletatik garatzen da eta bere prozesuetatik fabrikaziora eraman. Hau materialen tratamenduaren konplexutasun maila eta tolerantzia maila dela eta gertatzen da.

Osagaiak garatzeko funtsezko faktorea fabrikazio tresnen eta beharrezko makinariaren diseinuan kostuak dira, azken pieza eta tresnak lortzeko behar diren proben kostua optimizatu egiten dira etengabeko proba eta akatsen bidez.

Egoera honek enpresak motibatu behar ditu probak murrizteko metodoak aurkitzera: fabrikazio prozesuan parte hartzen duten elementuen portaerari buruzko ikuspegi egokia lortzea da ikasketa bidez. Une honetan aldiz, simulazioak software bidez egiten dira.

## 2.2.3. SIMULAZIO EMAITZAK – EMAITZA OPTIMORAKO BIDEA




**118. irudia:** Bete diren simulazio etapak


Aurreko 118. irudian klik batez bete diren etapak aurkezten dira. Ikusten dugu *drawbeads* atala bete gabe dagoela. Honek esan nahi du aurkeztuko diren simulazioetan ez dela balazten eraginik kontuan hartuko.

- **1. kasua:** Zapaltzailearen indarraren eragina


Jarraian aurkezten diren lau irudietan, 119, 120, 121 eta 122 irudiak, biribiltze erradioa 5 mm-takoa da eta lodiera 1,2 mm-takoa. Bi aldagai hauek konstante mantentzen dira eta aldatzen den aldagai bakarra zapaltzailearen indarra da.




**119. irudia:** Balazta gabeko 50 KN zapaltzaileaz lortzen den FLD diagrama



**120. irudia:** Balazta gabeko 100 KN zapaltzaileaz lortzen den FLD diagrama



**121. irudia:** Balazta gabeko 200 KN zapaltzaileaz lortzen den FLD diagrama




**122. irudia:** Balazta gabeko 300KN zapaltzaileaz lortzen den FLD diagrama


Orokorrean ikusten da piezaren barnean gune seguru nahiko daudela baina hala ere ez da nahiko luzatzen enbutizio eragiketa burutzean. Era berean piezaren ingurunean zimurdura gogorreko tendentzia guneak ditugu nahiz eta zapaltzailearen indarra handitu hor jarraitzen du piezaren barnealdera trasladatuz. Hurrengo puntuan beste aldagai bat aldatuko dugu beste biak konstante mantenduz eta ikusiko dugu gauzak hobetzen diren.

- **2. kasua: Biribiltze erradioaren eragina**

Jarraian aurkezten diren hiru irudietan, 123, 124 eta 125. irudiak, konstante mantentzen diren aldagaiak lodiera eta zapaltzailearen indarra dira. Kasu honetan biribiltze erradioa da aldatzen den aldagai gorako joeraz.




**123. irudia:** Balazta gabeko FLD diagrama biribiltze erradioa 6 mm deneko kasua



**124. irudia:** Balazta gabeko FLD diagrama biribiltze erradioa 7mm deneko kasua






**125. irudia:** Balazta gabeko FLD diagrama biribiltze erradioa 9 mm deneko kasua


Gune seguruak piezaren osotasun osoa ez duen arren, luzapen nahikoa ez duten gune handiagoak daude piezaren barnealdean. Kanpoaldean aldiz zimurdura gogorreko tendentziak jarraitzen du eta ikusten da gauza ez dela asko hobetu.

▪ **3. kasua: Lodieraren eragina**


Jarraian aurkezten diren 126, 127 eta 128. irudietan biribiltze erradioa eta indarra konstante mantentzen dira eta aldatzen den aldagaia lodiera da. Hiru kasu hauetan ikusten da zimurdura bortitzeko guneak presentzia handia duela bai piezaren mugan bai piezaren inguruan eta enbutizio prozesua burutzean hauek piezaren barnealdera trasladatzen dira. Era berean esan dezakegu kurbatura guneetan zimurdura tendentzia hor dagoela. Balazten geometria kurbatura guneetan ez dago definiturik ezta piezaren inguru osoan eta hori aurreragoko kasuetan aztertuko dugu ikusteko emaitza hobetzen den edo ez.



126. irudia: Balazta gabeko kasua lodiera 0,7 mm denean FLD diagrama



127. irudia: Balazta gabeko kasua 0,88 mm denean FLD diagrama




**128. irudia:** Balazta gabeko kasua lodiera 1 mm denean FLD diagrama


Ondorioz, esan genezake kasu ezberdin hauek aztertuz piezaren zimurdurak piezaren barnealdera trasladatzen direla. Hau saihesteko balaztak gehituko ditugu eta bete beharreko etapen, *hirugarren etapa*, betetzera ekingo diogu. Jarraian azertu diren kasu ezberdinak aurkeztuko ditugu bai eta bere irudiak ere.

▪ **4. Kasua: Balazten eragina**


Balaztak piezaren ezker eta eskuin aldean kokatu ditugu, ikusi 129. irudia, eta honek duten geometriak bere garrantzia du. Jarraian bost kasu ezberdin aurkezten ditugu, 130, 131, 132, 133, 134, 135, 136, 137, 138 eta 139. irudiak honen adibide dira eta ikusiko dugu geometria bakoitzak nola eragiten duen. Geometria bakoitzak eragiten duen FLD diagrama aurkezten da geometriaren definizioaren ondoren. Ondorio garrantzitsu bezala esan genezake lehen eta bostgarren aukerak pieza gehien eusten duten geometriak direla.




**129. irudia:** Balazten kokapena




**130. irudia:** Balazta duen lehen kasuaren geometriaren definizioa




**131. irudia:** Lehen aukeraren FLD diagrama




**132. irudia:** Balazta duen bigarren kasuaren geometriaren definizioa




133. irudia: Bigarren aukeraren FLD diagrama




134. irudia: Balazta duen hirugarren kasuaren geometriaren definizioa



135. irudia: Hirugarren aukeraren FLD diagrama




136. irudia: Balazta duen laugarren kasuaren geometriaren definizioa




137. irudia: Laugarren kasuaren FLD diagrama





138. irudia: Balazta duen bostgarren kasuaren geometriaren definizioa




139. irudia: Bostgarren kasuaren FLD diagram

Orain kasu ezberdinak aztertuko ditugu bi balazta izan beharrean lau jarrita, hau da, freno bikote bi jarriko dizkiogu eta ondoko emaitza ezberdinak aurkeztuko ditugu. Prozedura zein izan den azaltzeaz gain simulazioen emaitzak aurkeztuko dira aldi berean.

#### ▪ 5. Kasua: Balaztaren kokapenaren eragina


Aurreko ondorioak ikusita esan genezake balazten kokapenak ere bere garrantzia duela. Ondoko kasuetan balaztak berriz definitu ditugu piezatik gertuago eta kurbatura guneak inguratuz eta hauek inguratu gabe. Era honetan ikusi diren emaitzak ebaluatu dira eta emaitza optimorako bidea gertuago dagoela nabaritu da.

Lehen balazta bikotea definitu da, orain arte erabili dena, hurrengo irudian ikusten dugun moduan, ikusi 140. irudia.




**140. irudia:** Balazta editorea, frenoak definizioa


Orain beste balazta bikotea definitzea falta zaigu. Honetarako aurreko prozedura jarraituko dugu. Ondoko 141 eta 142 irudietan beste balazta biak nola definitu diren ikus dezakegu lehen etapa moduan. Jarraian erramintak definituko ditugu eta azken pausu bezalaxe geometria aukeratu dugu frenoak atalean egin dugun moduan. Hau ondoren aurkezten diren 143 eta 144 irudietan ikus dezakegu.




141. irudia: Frenoak2 goi balaztaren kokapena




142. irudia: Frenoak2 behe balaztaren kokapena



143. irudia: Frenoak balaztaren geometriaren definizioa




144. irudia: Frenoak2 balaztaren geometriaren definizioa




**145. irudia:** Aztertzen ari garen kasuaren FLD diagrama


Emaidza aztertuz gero ikusten dugu oraindik piezaren mugako zimurdura tendentzia hor jarraitzen duela. Hortaz balazta ezberdinak zehaztuko ditugu piezaren ingurune osoa hartzen dutenak. Lehen balazta, frenoak, berdin mantenduko dugu baina bigarrena, frenoak3, berria ezarriko dugu frenoak2 ezabatuz. Kasu honetan piezaren goi eta behe aldeak guztiz hartuko ditu bere kurbaturak kontutan izanik eta piezatik gertu. Nola kokatu ditugun balazta hauek 146. irudian ikus dezakegu, baita geometriaren definizioa 147. irudiarekin batera. Lehen kasu honen emaitza 148. irudian daukagu. Era berean bigarrenko eta hirugarrenko kasu bi definitu ditugu, 149, 150, 151, 152, 153 eta 154 irudiak honen adibide.




**146. irudia:** Frenoak balaztaren geometriaren definizioa



**147. irudia:** Frenoak3 balaztaren geometriaren definizioa




148. irudia: Aztertzen ari garen kasuaren FLD diagrama




149. irudia: Frenoak balaztaren geometriaren definizioa







150. irudia: Frenoak3 balaztaren geometriaren definizioa




151. irudia: Aztertzen ari garen kasuaren FLD diagrama



**152. irudia:** Frenoak balaztaren geometriaren definizioa



**153. irudia:** Frenoak3 balaztaren geometriaren definizioa




**154. irudia:** Aztertzen ari garen kasuaren FLD diagrama

Ondorio nagusi bezala esan genezake emaitza nabarmen hobetu dela. Piezaren barneko gune seguruak pieza osoa bere gain hartzen du eta piezaren kanpoaldean zeuden tendentzia gogorreko zimurdurak desagertu eta nabarmen desplazatu dira. Konturatzen gara material oso gutxi galtzen dela pieza enbutitzean eta honenbestez gure helburu bete dugula esen genezake. Era berean emaitza ezberdinak aztertuz ikusten da lehen eta bostgarren aukerak gehien eusten dutenak direla aurretik esan bezala. Ondoko atalean emaitza optimoari buruz hitz egingo dugu.

▪ **EMAITZA OPTIMOAREN ARGALTZEA**


Argaltzeak ez du piezaren % 10 a gaitutuko eta ondorioz ondoko 220. irudia ontzat emango dugu, hau da, emaitza optimo bezala.



155. irudia: Pieza optimoaren argaltze diagrama


#### ▪ EMAITZA OPTIMOAREN FLD DIAGRAMA

Aurretik aipatu ditugun kasu ezberdinak baloratzuz emaitza optimotzat 10. kasua hartu dugu, frenoak eta frenoak3 balaztak dituen hain zuzen. Iterazio honetan ikusi da emaitza nabarmen hobetu dela eta kasu honetan gune seguru ugari ikusi ditugu FLD digraman. Jarraian berriz aurkezten dugu diagrama hori, ikusi 156. irudia, informazioa freskatzeko asmoz. Ikusten da arrakala gune gutxi dagoela eta zimurdura gogorreko tendentziak ere gune gutxi du. Hartara material gutxiago desegingo da eta produktibitate handiagoa lortuz.



**156. irudia:** Emaitza optimoko FLD diagrama eta puntuotik matrizerara dagoen distantzia

▪ **EMAITZA OPTIMOAREN SPRINGBACK-A**




**157. irudia:** Piezaren springback-a

Prozeduran azaldu den legez emaitza hobeto bisualizatzeko asmoz sekzio edo mozketa bat burutu da eta berreskurapen elastikoaren aurretik eta ondoren

ikusten da ondoko 158. irudian. Era berean bi puntu ezberdinen arteko distantzia zein den jakitea era errez baten lortuko dugu. Honetarako *analyse* atalean erregela aukeratu dugu eta bi puntu klikatu ditugu eta pantaila txikiago bat irtengo da, ikusi 159. irudia, zein den tarte hori.



**158. irudia:** Muga bien irudia



**159. irudia:** Bi puntuen arteko distantzia

## 2.3. PROIEKTU PLANA ETA PLANGINTZA

---

Proiektuen programazioaren definizioak dio politika, prozedimendu eta beharrezkoak diren programak ezartzen direla zehazturiko helburuak lortzeko.

### Abantailak:

- Atazak guztiz definituta egonez gero, lan asko aurretiaz planifikatu daiteke.
- Ataza ez badago ondo definituta, ataza gauzatzekoan lortutako jakituriak ziur aski aldaketak suposatuko ditu programazioan, lehentasunean, etab.
- Zenbat eta ziurgabetasun gehiago izan atazek, orduan eta informazio gehiago prozesatu beharko da helburuak lortuko direla.

Honenbestez, alde batetik ziurgabetasun maila gutxitu edo guztiz kentzen du, helburuak hobeto eta zehaztasun gehiagorekin ezagutzeko ahalmena ematen digu eta azkenik lana monitorizatu eta kontrolatzeko oinarri bat izango da.

### 2.3.1. PLANGINTZA BATEN HELBURUAK ETA ABANTAILAK :

#### 2.3.1.1. HELBURUAK:

Proiektuaren konplexutasuna, datu kopurua, datak etab. kudeatzeko teknika hobetua da plangintza.

- Plangintza batean beharrezko informazioa:

Lan paketeak bata bestearen atzetik zenbatzen dira eta bakoitzak hurrengo informazioa eman beharko du: izenburua, laburpen txiki bat, arduraduna eta giza baliabideak, lan zama, baliabide teknikoak, iraupena eta entregagaien definizioa (emankizunak).

Proiektua kontrolatzeko mugarriak erabiltzen dira. Hauek kontrol puntuak edo, kritikoak diren datak islatu behar dituzte, beraien betetze data zehatza adierazi behar delarik. Azken finean, gutxi eta esanguratsuak dira.

#### 2.3.1.2. ABANTAILAK:

- Data eta kostu murrizketak betetzeko baliabideak nola erabili behar diren erabakitzen laguntzen du.
- Alternatibak ebaluatzen laguntzen du, proiektuaren atzerapenean duten eragina bezalako auziei erantzunez, ataza ezberdinen arteko lasaierak identifikatu, proiektuaren arrakastarentzat kritikoak diren elementuak identifikatu, etab. bezalako galderei erantzuna eman.
- Erabakiak hartzeko informazioa ematen du.
- *What if* ariketa errazten du eta bide larria identifikatzen laguntzen du.

### 2.3.2. PLANIFIKAZIOA:

Jarraian proiektu hau burutzeko lan plangintza aurkeztuko dugu. Honen iraupena hamabi astekoa izan da. Era laburtuan eta ordenatuan aurkeztuko dira atazak proiektu osoan zehar.

#### **PZ1. Proiektuaren lortzea**

Lehendabiziko zereginean, zehazki kudeaketa arloan, ingeniari sailaren laguntzarekin, iristen diren eskaintzako proiektu batean zentratzean gertatzen da. Arduraduna ingeniaria izango da eta langilearekin batera informazioa jasoko du. Azken honek informea garatuko du. Honek zazpi eguneko epea izango du prozesua sakon aztertu, informazioa bildu eta problema nondik nora doan antolatzeko.

#### **PZ2. Piezaren diseinu grafikoa**

Enpresak burutzen duen lehen zeregina karga liburua betetzea da, proiektuaren hasieratik erabiltzen den proiektuaren oinarriko informazioa biltzen duen dokumentua da.

Bezeraok helarazi dio ingeniariari pieza CAD formatuan eta honek langileari emango dio beharrezko simulazioa egin dezan. Honek bi asteko epea izango du. Programa informatiko baten beharra izango du, simulazio software indartsua duena, .iges artxiboa bertan lan egin ahal izateko. Hau zein izango den alternatiba atalean garatu da.

#### **PZ3. Diseinua eta simulazioaren analisia**

Karga koadernoarekin batera proiektuaren analisi global bat egiten da, honako azpiatazak dituena:

- Operazio kopuruen definizioa
- Helburua zehaztea

Hemen proiektuaren funtsa dago, saretze, simulazio eta post prozesadore atala baitago. Honen iraupena bost astekoa izango da. Nahiz eta lan guztia langileak egingo duen Iraitz Batiz Gangoiti



ingeniariak beharrezko konprobaketak eta zuzenketak egingo ditu. Hartara piezaren zailtasuna aztertzeko eta etorkizuneko arazoak aurreikusteko.

#### **PZ4. Plan metodoaren lortzea**

Planaren metodoa gauzatzea piezak duen eragiketaren kopuruaren arabera banatzen da. Gure kasuan enbutizioan, lehen etapan, baino ez gara zentratuko eta emaitza optimoa lortzean. Eragiketa hau programaren erramintekin egingo dugu. Laugarren etapa honek hamar eguneko iraupena du.

#### **PZ5. Plan erdi definituaren lorpena**

Bostgarren urrats hau gauzatua izango dugu bezeroari entregatzeko prest dagoenean. Bezeroarekin bilduko gara eta orain arte egindako lana aurkeztuko dugu hobekuntza gaie buruz eztabaidatzeko behar izanez gero. Honek 4 egun iraupena du.

#### **PZ6. Behin betiko planaren metodoa lortzea**

Zeregin honek azken planaren metodoa lortzea esan nahi du. Azken fasea simulazio osoa eta behin betikoa lortuz gero definituko dugu. Datu guztiak barneratu eta produktibitatean hobekuntzak lortuko dira. Hemen langilea eta ingeniaria batera dihardute lanean iraupena aste bikoa delarik.

Sei zeregin hauetan zehar proiektua garatzen eta idazten emango dugu denbora gehiena ahalik eta proiektu erakargarri eta errentagarriena egiteko asmoz.

Jarraian azaldutako zeregin bakoitzaren iraupena erakusten duen Gantt-en 11. taula dugu eta Gantt diagrama ondoko atalean aurkeztuko dugu berari buruzko teoria aurkeztu eta gero, ikusi 160. irudia.

Zereginaren izena	Hasiara data	Amaiera data	Iraupena (egunak)
1. Zeregina	12/2/18	19/2/18	7
2. Zeregina	19/2/18	5/3/18	14
3. Zeregina	5/3/18	9/4/18	35
4. Zeregina	9/4/18	19/4/18	10
5. Zeregina	19/4/18	23/4/18	4
6. Zeregina	23/4/18	7/5/18	14

**11. taula:** Zereginen taula

## 2.4. GANTT DIAGRAMA


Proiektuan definituriko atazen iraupenak adierazten dira barrak erabiliz. Albo batean proiektua osatzen duten atazak zehazten dira eta ataza bakoitzari barra horizontal bat esleitzen zaio, barraren luzera eta atazaren iraupena proportzionalak direlarik.

**Faseak:** ataza nagusiak determinatu -> iraupena estimatu -> grafikoki marraztu -> atazen arteko menpekotasunak ezarri -> denbora eskala egutegian bihurtu

Metodo honek bere abantailak eta desabantailak ditu jarraian azalduko ditugunak:

- Abantailak: oso sinplea eta ulertzeko erraza
- Desabantailak:
  - Normalean ataza kopurua txikia duten proiektuetan erabiltzen da.
  - Programazio determinista eta arbitrarioa da ( iraupenen estimazioa bakoitzaren esperientziaren arabera da).
  - Atazen arteko menpekotasuna ez da zehazten (zelan eragiten duten atzerapenek etab. Beste atazetan).
  - Ezin da zehaztu ataza bati aplikaturiko zuzenketek planifikazio orokorrari nola eragiten dioten.

Proiektu oro gauzatzeko beharrezkoa da epe batzuk betetzea, eraginkortasuna eta efizientzia bide izan nahi badira. Proiektu honetan definitu diren ezarpena abian jartzeko probak, mugak edo hobeto definituta, etapak, eta bakoitzari dagozkion denbora mugak, betearazteko behar diren langile eta ingeniariaren identifikazioarekin batera, ondoko 160. irudia beharko du proiektuak aurretik agertu den 11. taularekin batera.



160. irudia: Gantt diagrama

INDUSTRIA MEKANIKO INGENIERITZA GRADUA  
**GRADU AMAIERAKO LANA**

***AUTOMOZIO SEKTORERAKO TXAPAZKO  
OSAGAIEN SIMULAZIO NUMERIKOA***

***3. DOKUMENTUA – KOSTUEN ANALISIA***

**Ikaslea:** Batiz, Gangoiti, Iraitz

**Zuzendaria:** Ortega Rodriguez, Naiara

**Kurtoa:** 2017-2018

**Data:** 2018/06/15

Proiektu hau produktu edo zerbitzu bakar bat sortzeko helburua duen jarduera tenporala da. Disziplina anitz batzen ditu, informazioa eraldatuz eta giza ingurumen, tekniko, ekonomiko eta beste hainbat faktoreek baldintzatuta dago. Beharrezkoak diren dokumentua baino gehiago da, antolaketa eta zuzendaritza beharrezkoak dira. Gure proiektu hau bulego teknikoan bukatzen denez aurrekontua beharrezkoak dira. Gure proiektu hau bulego teknikoan bukatzen denez aurrekontua beharrezkoak dira. Gure proiektu hau bulego teknikoan bukatzen denez aurrekontua beharrezkoak dira. Gure proiektu hau bulego teknikoan bukatzen denez aurrekontua beharrezkoak dira.

### 3.1. GASTUEN ANALISIA

Bere helburua proiektuaren gauzatze materialaren kostu ekonomikoaren moneta unitatean zehaztea da. Neurketa dokumentuan eta planifikazioan oinarriturik egon behar da.

Kostu analisia egiteko arrazoiak:

- Proiektua egiteko kapital nahikoa dagoen ala ez jakiteko (maniobra funtsa kalkulatu da, eta aurrekontuarekin alderatzen da, arazoak egon daitezkeen ala ez jakiteko).
- Proiektuaren errentagarritasun ekonomikoaren bermatzeko. Errentagarritasun analisirako oinarritutako datua da, hasierako inbertsioaren balioa zehazten duelako.

### KOSTUEN ANALISIAK SAIL EZBERDINAK DITU JARRAIAN AZALDUKO DIRENAK:

- BARNE-ORDUAK**

Proiektua burutzen duen erakundearen langileen orduak, proiektua gauzatzeko. Kalkula ahal izateko, langile bakoitzak ataza bakoitzean egingo duen lana zenbatetsi behar da (ordutan). Orduak bider langile bakoitzaren ordu tasa eginez kalkulatu da.

Proiektu honetan ingeniari bat, 40 €/h, eta langile bat, 30 €/h, dugu. Guzti hau ondoko 6. taulan ikusiko dugu.

Tarea	Langileak	Kostua langilea (€/h)	Inbertitutako denbora (%)	Proiektu orduak (h)	Kostea (€)
Prozesuaren definizioa	Ingeniaria	40	20%	5	175
	Langilea	30	30%	15	
Simulazioa	Ingeniaria	40	30%	12	969
	Langilea	30	50%	55	
Plangintza	Ingeniaria	40	50%	2	106
	Langilea	30	20%	11	
<b>GUZTIRA (€)</b>					<b>1250</b>

## 6. taula: Kostu analisien barne-orduak

### ▪ AMORTIZAZIOAK/INBERTSIOAK

Enpresak proiekturako erabiltzen dituen aktibo finkoak dira: makineria, ordenagailuak, lizentziak, baimenak etab.

Aktibo fincoen erabiltzaileak ekartzen duen aktibo hauen balio galera ipini egin behar da aurrekontuan. Aktibo finkoak materialak edo ez materialak izan daitezke.

Hala ere, aipatu beharra dago berdinduena inbertsioak proiektu honetarako erosi ziren ala ez, aurrekontuan sartu behar dira. Hau ondoko 7. taulan ikusiko dugu.

Amortizazioa = (hasierako balioa / bizitza erabilgarria) \* erabiltze denbora

Kontzeptua	Kantitatea	Hasierako balioa, kostua (€)	Bizitza erabilgarria (h)	Proiektuko orduak (h)	Amortizazioa (€)
Ordenagailua	1	3000	8800	2500	852,27
Lizentzia Pam-Stamp (urteko)	1	2000	1760	1800	10227,27
<b>GUZTIRA (€)</b>					<b>11079,55</b>

## 7. taula: Kostu analisien amortizazioak

### ▪ GASTUAK

Proiekturako erabiltzen diren kontzeptuak, eta erabilia deuseztatzen direnak. Bidaiak, bulego materiala, argia, material suntsikorra, prototipoak, etab. Gastu guzti hauen ezaugarri komuna, ezin direla behin erabilia berriro erabili.

Gure kasuan bulego teknikoko lana baino ez denez, bulegoko materiala baino ez dugu izango kontutan, hurrengo 8. taulan ikusiko dugun bezalaxe.

GASTUAK	Kostua (€)
Bulegoko materiala	500

8. taula: Kostu analisien gastuak

## ▪ AZPI KONTRATAZIOAK

Proiektua gauzatzeko beste erakundeen lanak beharrezkoak direnean.

Normalean, arauen arabera, gutxienez hiru eskaintza eskatzen dira azpi-kontratazio bakoitzeko. Eskaintzen artean aukeratzeko balorazio ekonomikoa zein teknikoa egiten da. Azpi kontratazioen aurrekontuek atal berberak izango dituzte, tamainaren arabera (azpikontratazio txikietan ez da beharrezkoa).

Gure proiektua bulego teknikoan gauzatzen denez ez dago azpi kontratazioaren beharrik.

## ▪ KOSTU EZ ZUZENAK

Proiektuan inoiz parte hartzen ez duten langileak kontuan hartzeko atala edo enpresan dauden bestelako kostuak. Normalean, ordu zuzenen ehunekoa izaten da, enpresek kalkulatuak. Batzuetan barne-orduetan sartzen da.

- Sail ez ekoizleak: finantza saila, administrazio saila, informatika saila, etab.
- Azpikontratazio batzuk (segurtasuna, garbiketa, etab.)
- Gastu orokor batzuk: argia, ura, etab.

Esan bezala, kostu ez zuzenak proiektuetan esleitu ezinak izaten dira, proiektuetan parte hartzen ez diren izakiak izaten direlako.

Hau kalkulatzeko era: urte oso batean kostu ez zuzenak eta zuzenak kalkulatu dira eta ehunekoa kalkulatu da. Proiektuetan ehuneko hori erabiliko da, ikusi ondoko 9. taula.

KOSTU EZ ZUZENAK	
Kostu zuzenak	12329,55
kostu ez zuzenak	15%
<b>GUZTIRA (€)</b>	<b>1849,43</b>

**9. taula:** Kostu analisien kostu ez-zuzenak

## ▪ EZUSTEAK

Aurrekontuaren ehunekoa izanda ipintzen den kopurua, aurrekontuaren gehipenak ekar dezakeen kaltea ekiditeko. Normalean proiektuaren ehuneko %5-koa izaten da.

Gure kasuan zero hartuko da bulego teknikoan ezin baitira ezustekoak sortu.

Laburbilduz 10. taula aurkezten dugu kostuen analisiaren laburpen bat.

<b>LABURPENA</b>	
<b>INBERTSIOAK</b>	11079,55
<b>BARNE ORDUAK</b>	1250,00
<b>KOSTU ZUZENAK</b>	12329,55
<b>KOSTU EZ ZUZENAK</b>	1849,43
<b>EZUSTEAK</b>	0,00
<b>GASTUAK</b>	500,00
<b>GUZTIRA (€)</b>	<b>26008,52</b>

**10. taula:** Kostu analisisien laburpena

## 3.2. ERRENTAGARRITASUN ANALISIA

---

Proiektuaren errentagarritasuna, aurretiaz bete behar den nahitaezko baldintza da. Hala ere, analisiak egitea, ez du proiektuaren arrakasta bermatzen, baina arriskuak gutxitzen ditu. Azken finean, errentagarritasun analisiak ahalbidetzen ditu inbertsio alternatiba ezberdinak konparatzea, erabakia justifikatzea eta lortutako emaitzak aurreikusitakoekin aldaratzea.

Honekin jarraituz inbertsio baten errentagarritasuna kalkulatzeko inbertsioaren mozkina inbertsioaren guztizkoarekin zatituz lortzen den balioa da.

Ondorioz, proiektu bat ekonomikoki interesgarria da, bere errentagarritasuna arriskurik gabeko inbertsioak ematen duen errentagarritasuna baino handiagoa bada, eta aldi berean, erabiltzen den kapitalaren finantza kostuei aurre egiteko gai bada.

Gure proiektua aurreko atalean ikusi den bezala bulego teknikoan bukatzen da eta honen kostua 26.008,52 €-takoa dela esan dezakegu hamabi astetako epean. Metodo tradizionalan aldiz iraupena bikoitza izatera hel daiteke prozedura bera egiteko, material askoz gehiago galduz bidean eta proportzio kostu handiagoak izanik. Era berean metodo tradizionalan langileak, doitzaileak, laguntzaileen beharra izango du eta simulazio numerikoan aldiz langile bakar batek egin dezake guztia aurretiaz gerta daitezkeen ezusteak aurreikusi daitezkeelako ordenagailuaren laguntzaz.

Honenbestez, ondoko 12. taula egin dugu datuak eta kostuak adieraziz eta ikusiz zein metodo izango den errentagarriagoa. Emaitza ikusiz gero konturatzen gara simulazio numerikoaren bidez trokel bi egin daitezkeen bitartean eta hasierako inbertsioa berreskuratuz ia guztiz metodo tradizionalaren bidez trokel bakarra egin zitezkeen. Ondorioz, konturatzen gara software laguntzak gauzak asko aurretzen dituela enpresariaren lanak eta modelo bakarra ekoitzi beharrean modelo gehiago egin ditzake epe berdinean errentagarriago bihurtuz enpresa eta era berean lehiakorragoa. Honek baimenduko dio beste merkatu batzuetan sartzea eta ikerkuntza, garapena eta berrikuntzan inbertsioak egitea. Honenbestez, esan dezakegu simulazio numerikoaren metodoa errentagarriagoa dela.



	Simulazio Numerikoa	Metodo Tradizionala
Hasierako inbertsioa	26.008,52 €	0 €
<b>DATUAK</b>		
Proiektuaren iraupena	4 hilabete	9 hilabete
Doikuntza kostua	25 €/h	30 €/h
Simulazio kostua	40 €/h	0 €
Simulazio denbora	45 h	0 h
Xafla kostua	10 €/xafla	
Erabilitako xafla kopurua	18	35
<b>KOSTUAK</b>		
Doikuntza	16.000 €	43.200 €
Simulazioa	1.800 €	0 €
Xaflak	180 €	350 €
Σ Kostuak	17.980 €	43.550 €

**12. taula:** Metodoen konparazio taula

INDUSTRIA MEKANIKO INGENIERITZA GRADUA

## GRADU AMAIERAKO LANA

### ***AUTOMOZIO SEKTORERAKO TXAPAZKO OSAGAIEN SIMULAZIO NUMERIKOA***

#### ***4. DOKUMENTUA – ONDORIOAK***

**Ikaslea:** Batiz, Gangoiti, Iraitz

**Zuzendaria:** Ortega Rodriguez, Naiara

**Kurtsoa:** 2017-2018

**Data:** 2018/06/15

## 4.1. ONDORIO OROKORRAK:

---

Atal honetan proiektutik atera daitezkeen ondorioak aipatzen dira zerrenda baten bidez.

- Fabrikatuko den pieza automozio sektorerako bideratuko da eta hau automobilaren atearen barnealdean joango da.
- Helburu nagusia trokelaren fabrikazioa izango da pieza honen simulazioa burutu ahal izateko era optimo batean. Hau lortzeko helburu partzial batzuk bete beharko dira pieza optimo eta errentagarria lortuz.
- Aurreko puntuan aipatu dena kontutan izanik bidean galduko den txapa kopurua eskasagoa izango da eta hartara galera gutxiago izango dira, material kantitate berdinarekin pieza gehiago fabrikatu ahal izango baitira. Proiektuaren garapenean zehar balaztak duten geometrian asko zentratuko da ez baitute berdin eragiten geometria guztiak.
- Simulazio emaitzen atalean aspektu ezberdinak aztertu ditugu: zapaltzailearen indarra, balaztaren kokapena eta balaztaren geometria. Hauen arabera emaitza ezberdinak aztertu ditugu optimora heldu arte. Ikusi da balazta gabe piezaren barnealdean ez dela nahiko luzatzen enbutitzean eta piezaren ingurune osoan zimurdura indartsuko joera duela. Era berean zapaltzailearen indarra handitzen joan gara eta emaitza oso gutxi hobetzen dela ikusi da. Hori dela eta balaztak jarri ditugu gertuago edo urrutiago eta honek eragiten duen simulazio ezberdinak aztertu ditugu. Ikusi da balazta gertu eta muga guztia hartzen badu emaitza asko hobetzen dela era berreskurapen elastikoaren balioa oso txikia dela.
- Simulazio numeriko hau burutzeko Pam-Stamp simulazio programa erabili da, alternatiba atalean garatu da programa hau aukeratzearren arrazoia. Era berean atal berdinean prozesu hau burutzeko erabiliko den prentsa zein izan den ere garatu dugu, prentsa mekanikoa, eta hau erabiltzeak izango duen abantailak aipatu dira. Azkenik, enbutizio prozesuan erabiliko den txaparen materialak ere bere garrantzia izango du eta hau karbono gutxiko Al aleazioa izango da proiektuan azaldu bezala.
- Berreskurapen elastikoa piezaren gunean 0,509647 mm-koa da eta hau emaitza optimoko atalean ikus dezakegu.
- Argaltze maximoa piezaren gunean enbutizio prozesuan 1,22 mm-koa da eta onargarritzat eman da minimoak ez baitu piezaren % 10-a gaintitzen.

- Proiektuaren iraupena 84 egun dira eta honek plangintza bat izango du proiektuan zehar azaldu dena. Hala ere, honen gunerik zail eta luzeena simulazio numerikoa izango da, emaitza optimoa bilatzen baita. Hau burutu gabe ezin izango genukeen proiektu hau bukatutzat eman.
- Proiektu honek duen kostu totala 26.008,52 €-takoa da. Pisurik handiena barne-orduak dute, kostu zuzenen %85-a gutxi gorabehera. Era berean honen barnean langileak ordu kopuru handiena eman du proiektua burutzeko.

INDUSTRIA MEKANIKO INGENIERITZA GRADUA

## GRADU AMAIERAKO LANA

### ***AUTOMOZIO SEKTORERAKO TXAPAZKO OSAGAIEN SIMULAZIO NUMERIKOA***

#### ***5. DOKUMENTUA – BIBLIOGRAFIA***

**Ikaslea:** Batiz, Gangoiti, Iraitz

**Zuzendaria:** Ortega Rodriguez, Naiara

**Kurtoa:** 2017-2018

**Data:** 2018/06/15

## BIBLIOGRAFIA:

---

### HIZTEGIAK:

- <http://www.euskadi.eus/diccionario-elhuyar/>
- <https://www.wordreference.com/es/translation.asp?tranword=DOCUMENT>

### DOKUMENTAZIOA:

- Teknologia mekaniko ikasgaiko materiala
- Ingeniaritza proiektuak ikasgaiko materiala
- Egitura-materialak: Lanen eta hausturen mekanika ikasgaiko materiala
- Enpresen antolakuntza ikasgaiko materiala

### INFORMAZIO OROKORRA:

- <http://www.sernauto.es/es/sector-automocion>
- <http://www.eleconomista.es/ecomotor/motor/noticias/9039924/03/18/La-industria-de-la-automocion-espanola-acelera-su-expansion-en-Marruecos.html>
- <http://www.eleconomista.es/empresas-finanzas/noticias/8513773/07/17/La-automocion-espanola-ya-es-la-tercera-mas-competitiva-de-Europa.html>
- <http://www.minetad.gob.es/industria/es-ES/Servicios/Documents/agendas-sectoriales/agenda-sectoria-industria-automocion1.pdf>
- [http://www.abc.es/motor/reportajes/abci-liderazgo-absoluto-sector-automocion-espana-2017-201801241641\\_noticia.html](http://www.abc.es/motor/reportajes/abci-liderazgo-absoluto-sector-automocion-espana-2017-201801241641_noticia.html)
- <https://www.acicae.es/news/el-sector-vasco-de-automocion-crece-en-facturacion-y-en-empleo>
- <http://www.eleconomista.es/pais-vasco/noticias/9081641/04/18/La-automocion-vasca-preve-crecer-un-7-en-2018.html>
- <http://www.gestamp.com/Home.aspx?lang=es-ES>
- <http://www.matrici.com>
- <http://www.batz.com/es/>
- <http://www.maier.es/es/>
- [https://elpais.com/elpais/2014/09/26/media/1411746089\\_697121.html](https://elpais.com/elpais/2014/09/26/media/1411746089_697121.html)
- <http://www.interempresas.net/MetalMecanica/Articulos/105497-Los-materiales-compuestos-en-el-futuro-de-la-automocion.html>

- <http://www.interempresas.net/Sector-Automocion/Articulos/150089-Posibilidades-de-nuevos-materiales-para-industria-de-automocion-composites-reto.html>
- <http://juancapaj.blogspot.com/2011/12/materiales-empleados-en-la-automocion.html>
- <https://nanosteelco.com/products/sheet-steel/ahss-sheet/>
- <http://arisa.com/prensa-mecanica-y-servo-prensa-automatizacion-de-procesos/>
- <https://es.wikipedia.org/wiki/Troquelación>
- [https://es.wikipedia.org/wiki/Prensa\\_hidráulica](https://es.wikipedia.org/wiki/Prensa_hidráulica)
- <https://www.logismarket.es/prensas-hidraulicas/814582961-cp.html?src=gg&param1=g&param2=es sr 04 maquinas-herramienta&param3=814582961&param4=c&gclid=Cj0KCQjwxtPYBRD6ARIsAKs1XJ6O47uHJU9lhQurlF0grznFpU7bYko1wvy 592vDLoqjJpi1Xt - UoaAo6kEALw wCB>
- <https://www.thefabricator.com/spanish/la-servoprensa-funciona-mejor-como-un-sistema>
- <http://www.gestamp.com/que-hacemos/tecnologias/estampacion/estampacion-en-frio>
- <http://www.gestamp.com/que-hacemos/tecnologias/estampacion/estampacion-en-caliente>
- <https://es.scribd.com/document/255474732/Diagramas-Limite-de-Formabilidad>
- <http://bibing.us.es/proyectos/abreproy/70344/fichero/Capitulo+3.pdf>
- <https://pdfs.semanticscholar.org/9cc0/2c1053b866757e14f5b1463f8e0b29ce1799.pdf>
- <http://iopscience.iop.org/article/10.1088/1742-6596/734/3/032124/pdf>
- <http://citeseerx.ist.psu.edu/viewdoc/download?doi=10.1.1.519.2279&rep=rep1&type=pdf>
- [http://essay.utwente.nl/58267/1/graduate\\_report\\_2004\\_lingbeek.pdf](http://essay.utwente.nl/58267/1/graduate_report_2004_lingbeek.pdf)
- <https://www.esi-group.com/software-solutions/virtual-manufacturing/sheet-metal-forming/pam-stamp-stamping-simulation-solution>
- <http://www.aysmanufacturing.com/portfolio-item/estampacion-pam-stamp/>
- [http://www.aysplm.com/documentos/productos/pdf/pam\\_stamp\\_ays.pdf](http://www.aysplm.com/documentos/productos/pdf/pam_stamp_ays.pdf)
- <https://es.scribd.com/document/259215739/Manual-Pam-Stamp>
- <http://www.3dcadportal.com/pam-stamp-2g.html>
- <https://www.ansys.com/products/structures/ansys-ls-dyna>

- <https://www.ansys.com/products/structures/ansys-ls-dyna/lsdyna-capabilities>
- ANSYSWorkbenchLS-DYNAUsersInstructionsR16.pdf
- <https://www.autoform.com/es/>
- <http://www.3dcadportal.com/autoform.html>
- <https://www.eta.com/inventium/dynaform>
- <http://www.3dcadportal.com/dynaform-metal-forming-software.html>
- <http://www.figes.com.tr/english/dynaform/index.php>
- <http://www.cimatech.com/productos/dynaform/simulacion-estampacion-dynaform.html>
- <https://www.deform.com/products/deform-3d/>